
GOIZERO
Javier de Isusi




HONDARTZARA
ITZULI NAIZ GAUR.


EZ DAKIT ZEHAZKI NON.
BERDIN DIO.


EDONON.
EZ DA UDA IZANGO, EZ BAITAGO BESTE INOR.


BAKARRIK NAGO.


Bakarrik.


Bakarrik.


Horregatik dakit amets bat dela.
AMA AMA!!


AAAAH!
AMA! AMA! BARÇAREN PARTIDA!
AAAH!
GAUR! BARÇAAA!
PARTIDAA!
AAI... KONTXO, AXEL...
A ZER-NOLAKO EZUSTEKOAK ZUREAK!
PARTIDAA!
BARÇAA!
EZ DA JAITSIKO!
EZTA?
AXEL. LASAI.
BARÇA EZ DA JAITSIKO!
AXEL. BEGIRATU BEGIETARA.


Zer esan genuen goizei buruz?
Ez oihukatu.
Ikaratuta esnatzen naiz eta. Zuri gustatzen al zaizu inork zu beldurtzea?
Noski ezetz.
Niri ere ez, ba.
O! Jod...
Kaka!
Oraindik hamar minutu nituen.
Joder esaten duzu?
Ez...
Esan behar nuen... jod...
Jo duela... telefonoak.



Nire anaia da, osaba Alex...
... Inoiz ez da hain goiz esnatzen.
Zortekoa bera!
Alex...
Ni bezala. Ia-ia.
Barçakoa da.
Zer izango da Barçakoa! Hemen inor ez da Barçakoa.
Bai!
Bai horixe. Denetan handikoteena.
Axel!
Fermin? Aizu, atzo deitu nizun hozkailua dela eta. Zer moduz datorkizu gaur...?
Axel, utzi salto-txoak emateari. Urduri jartzen nauzu eta.
Aa aA... Aa...
Axel, maitea, gosaldu dezakezu?


Ez, goizean ez... Etxean ez dago inor.
Ba, astelehenean bestela, zer egingo diogu...
Tira, Axel, eser zaitez.
Hugo tontoa da.
Ni geratuko naiz.
Ados. Astelehenera arte, orduan.
Dena urtuko zaigu... Etor dadila Fermin, ni gera naiteke.
Tori, Axel.
Ez, ezin duzu.
Barça ez da jaitsiko.
Ostiraletan pilates eta mindfulness dituzu, eta, gero, ohiko kafea Laiarekin.
Barça ez da jaitsiko.
Ez da ezer gertatuko ez joateagatik. Zer ordutan etorriko zen?
Ezetz, ba...
Zure lana oso zorrotza da, eta tarte horiek behar dituzu. Oso argi geratu zitzaigun guztioi.
Hugo tontoa da.
Ez egin boikota zeure buruari.


Gaur Paularen etxean geratuko naiz bazkaltzen. Gizarteko lana egin behar dugu.
A! Eta amak badaki?
Bai.
Gaur Barçak jokatuko du.
Nola joango zara Paularen etxera?
Bu-sean.
Eta itzuli?
Partida ikusi behar da.
Ez dakit.
Barçak jokatzen du.
Lana amaitzean pasa naiteke zure bila.
Barçaren partida.
Entzun dizugu! Astun halakoa!
Ikusi beharra dago.
Zuk ikusiko duzu!
Nerea...!
Begira, Axel. Gauza bat bururatu zait: gaur ostirala denez, pizza batzuk presta ditzakegu, eta nahi duenak ikus dezala partida, sukaldean afaldu bitartean...
Bai!



... ETA NAHIAGO DUENAK AFAL DEZALA EGONGELAN, FILM BAT IKUSTEN DUEN BITARTEAN.
ZUK ETA BIOK, PARTIDA. ZU BARÇAKOA ZARA.
AITA EZ DA BARÇAKOA!
?
!
BAIETZ, AITA?
TIRA, PIXKA BAT, BAINA ZUGATIK BAKARRIK, E?
EA ZEIN DEN BARÇAREN HAMAIKAKO BIKAIN HORI.
MESSI, MARADONA, CRUYFF, KUBALA...
ZUBIZARRETA, RONALDINHO...
XAVI HER-NANDEZ, STOICH...
STOICHKOV, RIVALDO, INIESTA ETA...
AXELANCO.
KAR, KAR! ALEXANCO!
ZESAR!
JULIO ZESAR, ZALANTZARIK GABE!
MOTROX TAILERRAK
MOTROX


Atilak ez luke inolako aukerarik izango Julio Zesarren aurka!
Hunoak Erromaraino iritsi baziren, aurrean Julio Zesarren pareko bat izan ez zutelako izan zen.
Aurreko batean Atilari buruzko bideo bat ikusi nuen, eta tipoa apartekoa zen.
Kontua da hemen beti gaiztotzat jo izan dutela, baina Hungarian heroi nazionala da.
Berdin-berdin du txarra edo ona izan; azken batean, buruzagi tribala zen. Ez alderatu haren hordak erromatar legioekin, mesedez!
Erromatar Inperioarekin topo egin dugu, txo. Ez dago zereginik, bere pasioa da.
Kar, kar!
Nire txanda! Ea, nork irabaziko luke borroka...
Errege Magoak eta Bizarzuri lehiatuz gero?
Hiru baten kontra dira...
Bizarzuri, elur orein eta guzti, ezta? Borrokatu elur orein baten aurka.
Bai, eta Errege Magoek morroiak eta gameluak dituzte. Borrokatu gamelu baten aurka.


Bizarzuri lodi dago eta vodkari zurrut egiten dion itxura guztia du. Soilik Meltxorren aurkako borroka balitz, bale, Meltxor agure zahar bat da eta, baina begiraiozu Baltasarri.
Amarru guztiak dakizki horrek. Deskuidatzen bazara, pateran etorri da!
Bizarzuri *kaput*.
Ados, ados... Monarkiak irabazi du, kar, kar!
Bota, Martin, zure txanda da.
Ea...
Mmm...
Nork irabaziko luke borroka...
Mmm...
Ez dakit... Barça eta Betis lehiatuko balira, esaterako.


Zer?
Zertan pentsatzen ari zara zu? Kinielan?
Jokoz nahastu zara, Martin.
Kar, kar, bale, arrazoi duzue.
Nik zer dakit...
Gaurko partida da. Axel burua berotzen ari zaigu goizean jaiki denetik.
Zer gertatzen zaio mutil horri Barçarekin? Lagun culé-ren bat dauka, ala?
Ez dakit, txo. Misterio bat da.
Mutil horrengan ia dena bezala. Misterio puta bat.
Tira, baina ondo daramazue, ezta?
Bai. Ondo.
Anak ere bai, ala?
Bai... Gutxi gorabehera.
Tira, egin galdera, baina tranparik gabe oraingoan, e?


NESKA, AURPEGI TXARRA DUZU.
ZER NAHI DUZU, BA? OSO GAIZKI DARAMAT AXELEK GOIZERO-GOIZERO EZUSTEKOEKIN ESNATZEARENA.
NORMALEAN SALTO BATEZ SARTZEN DA NIRE OHEAN, BAINA GAUR OIHUKA HASI DA...



PARTIDAAA! BARÇAAA!
BAINA... ZER GERTATZEN ZAIO MUTIL HORRI BARÇAREKIN? LAGUN CULÉ-REN BAT DAUKA, ALA?
EZ, NESKA.
MISTERIO BAT DA. AXELEKIN DENA DA MISTERIOA.
BAINA ONDO DARAMAZUE, EZTA?
BAI...
NAHIZ ETA BATZUETAN DENA UTZI ETA KOTXINTXINARA EDO KINBANBARA JOATEKO GOGOA ETORTZEN ZAIDAN.
KAR, KAR!
KOTXINTXINA! MENDEAK ZIREN HORI ENTZUTEN EZ NUELA!
NI EZ NAUZU ENGAINATUKO. HORI ESATEN DUZU BADAKIZULAKO EZ KOTXINTXINA EZ KINBANBA EZ DIRELA EXISTITZEN. ZUK EZ DUZU INORA JOAN NAHI. EGON NAHI DUZUN LEKUAN ZAUDE.
AAI... BAI... GOIZAK BAKARRIK ALDATUKO AHAL IZANGO BANITU... OKERREN DARAMADANA DA HORI. GOIZAK.
NOIZBAIT LASAI ESNATU AHAL BANINTZ...
HORI BESTERIK EZ DUT ESKATZEN.
OSO FRIKIA NAIZELA USTE DUZU?
FRIKIA? HORREGATIK?
AI, FRIKIEI BURUZ ARI GARELA... EZ DIZUT KONTATU!
LARUNBATEAN IGERILEKURA JOAN NINTZEN KRISTINAREKIN, ETA ARDURADUN BERRIAREKIN HITZ EGITEN HASI NINTZEN.
EZ ESAN!
LIGATU EGIN ZENUEN?
ITXURA EDERREKO MUTIL HORREKIN?


Itxura ederreko dio besteak! Mesedez!
Mutil katxarroa!
Eta ligatu ez, baina hizketan hasi ginen... Tira, ezagutzen nauzu.
Dena oso ondo, harik eta gure lanari buruz hasi nintzaion arte. Badakizu zer bota zidan tipoak? Zergatik egiten dudan hori.
Baina modu txarrean, e? Han hasi zitzaidan "ez zaitut ulertzen" eta "zu bai frikia!" esaka.
Eta zer erantzun zenion?
Ba, nik ez dudala ulertzen nola ez dagoen gauza bera egiten duen jende gehiago. Eta frikia, izatekotan, bera izango dela, eguna kloroa arnasten igarotzen duela eta. Ze kristo!
Kar, kar!
Argi dago nork bere bokazioa duela.
A zer-nolako hitzak erabiltzen dituzun, neska. Nire amona dirudizu. Ezta mojak bagina ere! Ia nahiago dut frikia izan moja izan baino.
Kar, kar!
Tira, friki hau badoa, Kristina jaso beharrean dago eta.
Ai, Laia, eskerrak zu zaitudan. Unetxo hauengatik ez balitz...
... Eta kaka egiteko unetxoengatik ere bai...
Kar, kar, kar!
Hori bai ez niola amonari inoiz entzun!


Kexatzeko zaude, ba! Axelek komunean bakarrik egoten uztea lortu duzu gutxienez. Niri Kristinak ez dit atea ixten ere uzten.
Zer moduz dago?
Oraingoz... Tira, esan dezagun ez duela arazorik ematen. Baina estatua batekin egotea bezala da. Ez du emoziorik transmititzen.
Denbora gutxi darama...
Nahikoa institutuan izengoitia jartzeko. Asmatu zein. Ez dute burua asko estutu.
Ez dakit... Ukrainarra?
Landuxeago bat. Zerk errimatzen du Kristina izenarekin?